



Bila itzazu frutak

FITXA

4

Helburuak

- FRUTA-AHORAKINA HANDITZEA.
- UKIMENAREN BIDEZ HAUTATUTAKO FRUTAK EZAGUTZEA ETA DESBERDINTZEA, ETA BAKOITZAREN IZENA JAKITEA.

Ikastaroak eta arloak/Eremuak/Materiak

Haur Hezkuntza.

Gomendatutako adina

3-5 urteko ikasleak.

Jardueraren deskribapena/Metodologia

Hiru eta lau urtekoen klaseak erabilera anitzeko aretora joango dira, bakoitza bere aldetik. Fruta bakoitzeko bost ale egongo dira, gune mugatu batean banatuta.

Klase bakoitza lau taldetan banatuko da, eta talde bakoitzak fruta bat bilatuko du. Lau minutu izango dituzte frutak bilatzeko, baina begiak estalita egin beharko dute. Talderen batek ez baditu denak aurkitzen, gainerako ikasleek bilatzen lagunduko diote.

Hain ohikoak ez diren fruta batzuk sartuko dira, ikasleek ezagut ditzaten.

Bilaketa amaituta, aurkitutako frutak zatituko dira, eta haur bakoitzak jaten duen frutaren izena esan beharko du (hizkuntza batean edo gehiagotan).

Fruta-dastatzea hamaiketakoa edo askaria izan dadin saiaturako gara.

Aniztasunari erantzuteko, hezkuntza-laguntzako berariazko premiak (HLBP) dituzten ikasleentzat beharrezko giza baliabideak edukiko dira (PT, hezitzailea, logopeda), eta irakasleek, tutoreek edo ikasle laguntzaileek aktiboki lagunduko diete, premia zehatzen arabera.

Jardueraren aurretik, ikasleen elikadura-alergiak edo kontaktuagatik dituztenak kontsultatuko dira, jarduerarako hautatutako frutei dagokienez.



Egutegi eredua/Iraupena

Saio bat (45 minutukoa) jolasa egiteko, eta, ondoren, fruta-dastatzea egiteko denbora.

Aukeratu
osasuntsu jatea
Zu irabazle!



Elige
comer sano
¡Tú ganas!

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD

Jarduera-eremua _____

Eskolako jangela Ikasgela Etxea Patioa/Gimnasioa

Beharrezko baliabideak _____

Giza baliabideak:

Irakaslea.

Materialak:

Hautatutako frutak.

Oihalezko zapiak.

Erabilera anitzeko gela, hainbat ikasgelatako ikasleak elkartzeko.

Dastatzea prestatzeko tresnak.

Ebaluazio-metodoa/Adierazleak _____

Ebaluazio jarraiaren bidez, ondorengo hau baloratuko da:

- Ikasleek jardueran eskainitako fruta jan duten.
- Ikasleek frutak ukimenaren bidez ezagutzen eta desberdintzen dituzten eta horien izenak dakizkiten.

Informazio gehiagorako (aurretiazko esperientziak, material lagungarria, bibliografia...)_____

Aurretiazko esperientziak eta material lagungarria:

- http://repositori.uji.es/xmlui/bitstream/handle/10234/79586/forum_2003_28.pdf?sequence=1

Bibliografia:

- Mustonen S, Tuorila H. Sensory education decreases food neophobia score and encourages trying unfamiliar foods in 8–12-year-old children. Food Qual Prefer. 2010; 4):353-360.
- Mustonen S, Rontanen R, Tuorila H. Effect of sensory education on school childrens food perception: A 2-year follow-up study. Food Qual Prefer. 2009; Vol. 20(3):230–240.
- Van Cauwenberghe E, Maes L, Spittaels H, van Lenthe FJ, Brug J, Oppert JM, De Bourdeaudhuij I. Effectiveness of school-based interventions in Europe to promote healthy nutrition in children and adolescents: systematic review of published and 'grey' literature. Br J Nutr. 2010; 103 (6): 781-97.

